

joxe azurmendi

# ABERRI EGUNEN IDEOLOGIEZ



Hirualdi edo fasetan bereziko ditut Aberri Aberri Egunak, borrokazkoak, oraingo festak.

Ez dut historia egingo: aldiaren aldiko abertzaletasunaren espresio ideologiko eta sinboliko gisa hartuko ditut Aberri Egunak. Halere tratamendu nahiko desberdina eman beharke diet. Nahitaez labur eta eskematiko ihardun behar bemen.

## I HIRU ALDI

Aberri Egunek hartzen duten sentidoa textuinguru politikoak ematen diena izan ohi da:

1. Gerra aurrean Bazko sentidua bat zutela, esango nuke: Baina hau gutxiago ezagutzen da eta aparte tratatu nahi nuke.
2. Gerra ostean, aldiz, Aberri Egunen agerikeri ospatzea 1964ean hasten da berriro: Gernika, Bergara, etab. Borroka giroa dago. Hain zuzen defentsiban egon den eta ofentsibara pasa den herri baten borroka giroa. Aberri Egunak geroz eta ofentsiboagoak izango dira, gogorragoak. Ikurrin alaien margoek baino mitrailetek eta kontrolek mar-

katzen dute Aberri Eguna urteotan. Hiriak militarki okupaturik daude.

Fededunak Elizan ere gogoratuko dizu bere Aberri Eguna. Baina handik kanpora sinbologia erlijiosoak eta errezoak beren lekua zeharo galtzera doaz. Gerra ideologia bat da Aberri Eguna hartzen ari dena.

Prozesu honetan 1967 eta mugarririk bezala ageri dira: 1967an PNVek Gasteizera deitu zuen, ETak Irun-Hendaiara. Honez gero abertzaletasuna es da bat, bi edo hiru baino. Bakoitzak bere ideologiaren arabera ulertuko dizu Aberri Eguna. 1968 Manzanasen hilketaren urtea da: Etxebarrietaren heriotz urtea orobat.

3. Hamar urte geroago, 1978, Franco hil da, Aberri Egunei ofizialki festa karakterea eman nahi zaie geroz eta gehiago: hirugarren aroan gaude, noski. Bestela Aberri Egunetan borroka egunak jarraitu nahi dituztenen, eta oroitzen edo festa egun bihurtu nahi lituzketenen diferentzia dago narmenena ideologikoki. Aberri Egunak, beraz, ideologia franko oposatuak ditu gaur.

Gerra aurrekoa da gutxienean ezagutua eta horretan gertatuko gara ondorengoan, bukaeran gaurko egunera itzulitzeko.

## II BAZKOETAKO LITURGIA ABER- TZALEAK

Oker ez banago, aurten betetzen dira EHUN URTE, Sabin Arana Goirik, Bazko igande goiz batez, bere neba Luisen errebelazio abertzalea izan emen zuela Abandon, 1882an. Biak estudiantek ziren, elkarriketa luze batetan, etxeko baratzean, Luisek neba gazteagoari erakutsi zionean, «Bizkaia ez dela Espainia». Bazko igande goiza zen eta «Me sacó de las tinieblas extranjeristas» aitortzen du Sabinek. Mintzaera liturgikoa da hau. Bazkoetakoa.

Errebelazio egun haren oroigarri ospatzen dira Bazko igandez Aberri Egunak.

«Bendito el día en que conocí a mi patria!», gomutatzen da Sabin. Harrez gero Aberri Egunak (lehenengo aroa) hiru elementu banaezinezko horiekin agertuko dira: Sabinen pertsona, errebelazio abertzalearen ospaketa, euskal nazionaren iragapidea heriotzetik bizitza berritara. Baina hirurak ideia bakar batetan bil daitezke: Bazkoaren ideian. Bai «Berbizkundera», bai Sabinen pertsona, bazkoazko argitan interpretatzen dira.

### Enbeita Urretxindorra

Nabarmena da bazkoazko sinbologia, Urretxindorrak lehenengo Aberri Egunerako jarri zituen bertsoetan hone-las esaten da:

Euzkijak mendirik argi  
negu ondoren... Euzkadi oro  
sortu da euzko mintegi.

Bazko sinbologia. Ohizko irudiez gainera, negu/udaberri motiboa (hots, heriotze/bizkunde) eta **sol oriens**, eguzki berriarena (atzean geratu den gaua suposatu behar da), eusko lurretako bizitzaren berritzearena: Euzkadi oro mintegi. Udaberri bat Euskal Herri zaharrea.

### Lizardi

Bazko liturgiak iluntasunaren eta argiaren sinbolizmoaz lanegiten du. Sinbolismo liturgiko honetaz baliatzen da Lizardi Arana Goiritaz diharduenean. Funtsean abertzaleen sentiera arrunt bat adierazten zuen.

Sabin «guri argi ematearren itzali» da, Jesukristo guri bizitza ematearren hila den bezala, gurutzean: badakigu justizia espainolak nola gurtzifikatu zuen Sabin. Guruzbide bat izan zen haren bizitza. Gartzelak, pertsegizioa. Baina haren mezuak fruitu eman du. Gazterik hildako Sabinek argitu gaitu (askatu, ebanjelizatu), ez garelako espainolkume batzuk. Herri bat gara, geure nortasuna dugu, bagara norbait. Gu geu gera, ez inoren morroin. Espainolen esklaboak gara, baina ez espainolak. Sabinen argiak atera gaitu ilunpetatik, hotsegin digu askatasunera:

Aren argibidez ni jabetu  
enegan bazala norbait atxilotu.

Bazter zokoan zegoen aberria (edo euskara, Lizardiren-

tzat berdintsu bait da), «ene ta asaben oarrezak botea» Sabine berbiztu digu. Iluntasuna esklaberia da, argia askatasuna. Lizardik, abertzaletasunaren bidez, aberria ezagutzuz, somatu duen «berriz-jaio-poza» kantatu duenean, Bazko liturgiako beste motibo bat gogoratzen digu oraindik: bataioarena, sortze berriarena (edo, bibliokoki, Itsaso Gorritik askatasun bizitzara pasa den judu herriarena). Haur bataiatu (birjaio) berriei jantzi berri xuriak jartzen zaizkie: lizardik berdintzen du Sabinen oroimena, «aberriz ta mintzoz gu jantziarena».

Esan beharra dago bazkoazko sinbologiaren baliapena oso zabaldurik egon dela gure artean, bai Aberriari eta bai Sabini buruz. Arestik berak tradizio hau luzatzen du:

Sabino Polikarpo  
Abandoko  
Kantabria zaharrari eman zenion  
itxura berri bat...

Bazko liturgiako «defecta erigik inveterata renovari et por ipsum redire omnia in integrum»: eroria jaso, zaharkilatua berritu, dena bere osotasunera bihurtu. Itxura berri bat ekarri dio munduari salbatoreak.

Sabini zor diogu.

### Faxismoaren gau beltza


1932: Bilbo, 1933: Donostia, 1934: Gasteiz, 1935: Iruñea..., libertate errepublikanoan ospatu ziren Aberri Egunak: euforiaz beteak, geure kontzientzia berrirabazkiaren eta «Pizkunderaren» liturgiak.

1937an frontean ospatu zen Aberri Eguna: bizitza berriaren argitasun ideiar heriotzaren errealitate beltza lotu zitzaion, hurrengo urteetarako markatuta utziko bait zuen. Gero Aberri Egunik ez zen ageriki ospatu 1964era arte. Euskaldunentzat Bazko igandeak Aberri Egun jarraitzen zuen, baina bihotzetako isiltasunean.

Aurrera baino lehen esan beharra daukat, niretzat «Bazko», «liturgia» eta beste termino guzti hauek batere konotazio negatiborik ez dutela. Litekeen positiboena dute, aitzitik, izatekotan. Ez da sekula aberriaren arazoa sinbologia ederrago eta sentituago batekin ospatu edo kantatu gure artean. Benetan inpresionagarria da Euskal Herriaren historiako aldi hau eta bazkoazko sinbologian espresabide bortitz, aberatsa arukitu du bere sentimenduentzat.

Gerrarekin kanbio huandi bat sortzen da. Faxismo urte beltzotan, Bazkoa ere iluna da. Beldur isilaren, derrotaren, esperantza desesperatu baten gau itxia. Ostirala Santuarekin jositako Bazkoa. Aberri Eguna eliz barneetan ezezkutatzen da, oihuak eta irritziak otoitza eta negarra izango dira, manifestazioak bihotz barne isiletan egingo dira.

Abertzale asko urte hauetan Arantzazura igoko da. Aste Santuak sekula ez bezala irabaziko du. Festaren ordez, dramaren tankera hartzen du euskal Bazkoak. Euskal Herri zanpatua Israelekin berdintzen idasi da. Baina orain Ostirale Santua biziago sentitzen da, ezen ez Bizkunde argidiztiratsua. Euskal Herria gurutzean dago.



Inork ez du hobeto espresatu, niretzat, kanbio hau Salbatore Mitxelenak baino. Haren obra osoa, batez ere **Guruzbidea, Euskal saminaren guruzbidea, Erri bat guruzbidean**, etab., baina baita **Bizi Nai** edo **Unamuno ta Abendats** ere, edo **Arantzazu euskal poema**, obra osoa funtsean, drama honen espresio da.

Urte batzuetan esperantza eduki zen oraindik (Bazko esperantza orain aliatuen garaitzapean esperantza bihurtzen da: kuriosoak Mitxelenaren oharak 1943an, ik. **Idazlan Guztiak**, I, 1977, 86/87). Baina demokraten «traizioarekin» pikutara joango dira laster esperantza guztiak.

### Bazko ideologia bat

Aberri Egunak, lehenengo, errebelazioa ospatzen du: euskaldunek (Sabin Arana Goirik) aberri bezala Euskadi ezagutzea, Bigarren, ezagutzearekin hasi den Bizkundera: karlistada ondorenean lur jota zegoen herriaren ueste on berria eta borroka berria. Ilunpearen erdian argi bat biztu da. Zuzen ere zuzen idatzi zen lehenengo Aberri Egunaren inguruan: «Aberri-eguna, berbizkunde eguna ixan da Euzkadi'rentzat».

Sabin Arana Goiri, Aberria eta Aberri Eguna, Berbizkunde, gauza beraren izen desberdinak dira. Edo elkar

osatzen eta argitzen duten osagarriak bazkoazko sinbolismo multzo batetan.

Gaurko gazte askok nekez somatuko du bazkoazko sinbolismo guzti honen indar ikaragarria (errealismo sakona barnean) eta bizitasun dramatiko. Ongi ulertzeko, bere burua gehien-gehienbat fededun aitortzen zuen Euskal Herri hartara beharko genuke itzuli eta Bazko gaueko liturgia batetan parte hartu. Bazko gaueko liturgia zaharra alegia, misterios betea, erlijioen historiak inoiz sortu duen sinbolismo espresibuenetakoz, forma sotil austeroetan oraindik ageri-agerian eramanez esklabu eta salbazio ritoetako mundu helenikoaren seinaleak, judu herriaren askatasun doktrinarekin. Irilandarrentzat bezala, euskaldunentzat (eta eslabiar herrientzat) Bazko gaua Aberriaren Eguna bilakatu da, argiaren eta askatasaren eguna.

Gau honetan, gaberdia pasaxe, Eliza osoa ilunpetan zegoen. Jendea kanpoan zegoela, gau beltzean, sua bizten zen Eliz atarian: urarekin sua bedeinkatuz argiaren liturgia hasten zen, suaren ospakizun magikoa. Kandela haundi baten argitan sartzen ziren denak Elizako ilunpetan, argi biztu bakarraren argitan «poz bitez oraintxe zeruetako aingeru taldeak», antzina-antzinako melodia gregoriano zoragarrian entzuteko: hau da gaua, Moiseri, Egiptoren menpetik ateratzean, argi egin zeniona... Eta euskaldunak Espainiaren menpetik ulertzen zuen, eta Itsaso Gorrian



aurrera zihoan askatasunaren, judu herriarekin. Ez euskaldunak bakarrik: historian zehar herri askok entzun du Bazko gauen bera askatasunaren mezu ezkutua. Argiaren gaua da. Askatasunaren utopiak sekula eduki duen espresio bortitzena.

### III EUSKAL NAZIOAREN EGUNA

1. Aberri Egunez Aberri Egun, Arana Goiriren deia doa: «los bizkainos no queremos otra cosa sino que la nación española retire de nuestro territorio su dominación; para que Bizkaya sea de los bizkainos y éstos la gobiernen libremente, sin estar sometidos a más poder superior que el del Señor de todo el universo».

Lehen-lehenetik dago garbi Aberri Egunaren sentidoa: euskal nazioaren eguna da, **askatasunaren eguna** zehazkiago.

2. Hemendik behera 1978ko neure pasarte batzuk aldutuko ditut, ezer berritan sartu gabe:

«Euskal Herriaren askatasun borrokan, biraketa radikal bat eman du Arana Goirik: ordura arte foralismoan oinarritzen zen, orain nazio kontzeptuan. XIX. mendeko euskal askatasunaren borrokariak (Zumalakarregi, etab.) gehienez ere foralistak izan dira.: aranaz gero «nazionalistak» gara, «abertzaleak»: alegia, gure askatasuna, noizpait Forurik edo izan genuelako ez, baino nazio ere gehiegi gel-

ditzen da oraindik: «la desgracia más grande del bizkaino es el no conocer a su Patria». Patria **ab/herri** da; **herri** hain zuzen. Ez, holako edo halako instituzioen batzuk, haien nagusia baino: herria. Eta askoz gutxiago kasta pribilegiatu, edo jauntxo, edo burges txiki ala haundiri: baina herria, eta herria bere buruaren —Euskadiren— jaun eta jabe».

3. «**Egunak**, asko daude, holakoak: Lanarena, Bakearena, Aitarena eta Amarena. Eta Aberriarena, Aberri Egunak. Holako **egun** guztiek hartu ohi dizute itxura berdintsua: sentidurik izan dezakete; edo, oso erraz, itxuragabeak bihur litezke, ideologiaren karnabak bat edo dendariaren negozio bat, ritual hutsak».

«Aberriaren egunak edo festak, Estatu guztiek dauzkate eta festa-egun ofizialak izaten dira egunok. Alegia: lehenengo, festa egunak izaten dira: guk, ordea, ez daukagu batere arrazoirik, gure Aberri Eguna festa bihurrazteko. Gure Aberria borrokan dabil eta Aberri Eguna ez da borrokaren parte besterik. Bigarren, ofizialak izaten dira festaok. Hortik etor daiteke beste arrisku bat Aberri Egunarentzat: Botereak, eta borroka abertzalea «asimilatu» nahituz dezan edozein Boterek (Alderdi, etab.), Aberri Eguna ofizialdu besterik ez bait du nahiko. Orduan Aberri Eguna botereak antolatzen duen festa bat besterik ez litzateke izango. Erromeria haundi bat, kito» (1978).

Joxe Azurmendi